

ADIMEN ARTIFIZIALARI BURUZKO ADIERAZPENA

Europako literatur itzultzaileen elkarteen bilguneak (CEATL) arretaz aztertu du nolako bilakaera azkarra izan duen AA sortzailearen erabilerak liburugintzan, dela gai horren alorrean egin dituen ikerketen bidez, dela sektoreko beste erakunde batzuekin batera sinatutako adierazpenen bidez. Etengabeko garapenean dagoen eztabaida honetan, honako hauek dira gure iritzi eta eskariak.

Pertsona guztiak dira garrantzitsuak: gure eskari juridikoak

- *Literatur itzulpena hiru printzipio hauen arabera baizik ezin da existitu: Baimena, Ordaina, Gardentasuna**
Erabilera komertzialerako (tartean AA makinak trebatzeko) egiten den eskubide-lagapen oro beti negoziatu behar du obraren egileak onespensklausula baten bidez.
- *Gardentasuna bermatu behar da liburugintzaren kate osoan, goranzko nahiz beherezko norabidean*
Zorrozki bete behar dira AA konpainiei ezartzen zaizkien gardentasuneskakizunak. Era berean, baldin eta argitalpen-prozesuaren edozein fasetan AA sortzailerik erabili bada, horrek behar bezala adierazita agertu behar du azken produktuan. Ekoizpen-kateko parte-hartzaile bakoitzak argi adierazi behar du AArrik erabili ote duen, eta dagokionak dagokion ordaina jaso behar du egindako lan zehatzagatik.
- *Ez zaie dirulaguntza publikorik emango AA sortzaileen bidez egindako argitalpenei*
Politika publikoak guztiz erabakigarriak dira liburugintzarentzat: merkatuak soilik ezingo luke sostengatu herrialde moderno baten kultur aberastasun guztia. AArren erabileraren atzean dauden interes ekonomikoek ez dute diruz sustatuak izan behar.

Hizkuntza guztiak dira garrantzitsuak: gure ikuspegi profesionala

- *Makinak ez dira itzultzaileak, 'translatoideak' baizik. Ez dute itzultzen; material testuala sortzen dute*
AArren erabilerak estandarizatu egiten ditu itzulpenak, eta pobretu egiten ditu kultura eta hizkuntza idatziak, besteak beste lehenetsitako aukerengatik (makinak egiten digun lehenengo proposamena onartzeko joera dugulako) eta autokutsapenagatik (makinak bere ekoizpenetatik ikasten duelako).
- *Literatur genero guztiek merezi dute gizaki batek itzuliak izatea*
Liburu batzuk AA sortzailearen bidez beste batzuk baino errazago landu daitezkeela pentsatzeak bereizketa arriskutsu bat sustatzen du goiliteraturako

testuen eta estelakoen artean, eta horrek oztopatu baizik ez du egiten irakurketaren bidezko gizarte-garapena.

- *Hizkuntza guztiek merezi dute gizaki batek itzuliak izatea*
Ez dugu uste AA hizkuntza minorizatuera errazago iristeko tresna bat denik. Aitzitik, hizkuntza hegemonikoak zubi-hizkuntza gisa erabiltzearen arriskuaz ohartarazi nahi dugu. Itzultzaileen bitartekaritzarik gabe, argitaratzaileek merkatu-mekanismoekiko are mendekotasun handiagoa izango dute zer inportatu erabakitzean.

Liburu guztiak dira garrantzitsuak: gure sineste humanistak

- *Literatur itzulpena ez da transkripzio hutsa*
Literatur itzultzaileek beren testuinguru kultural, sozial eta historikoan errotutako testuak itzultzen dituzte, eta itzulpen horien irakurleak ere beren testuinguru zehatzetan sustraituta daude. Itzultzeko, ezinbestekoa da testuinguru horiek behar bezala ulertzea, baita soremenezko idazketan ongi gaituta egotea ere. Makinek ezin dute halakorik egin giza ahalegin handi baten laguntzarik gabe.
- *Sormenezko ekintzek egiten gaituzte gizaki*
Zalantza egitea gizakion ezaugarri bat da, eta makinek ez dute zalantzarik egiten. AA sistemek soluzio «funtzionalak» proposatzen dituzte, inork ezin dituenak atzera bota edo zalantzan jarri. Pertsonak eskubidea izan beharko lukete sortzeko —eta trukean ordain egokia jasotzeko, haien lanbidea bada—, eta sormenezko lanak irakurriz beren gogoa eta arima aberasteko.
- *Literatur itzulpena soremenezko lana da*
Sormenezko itzulpena literatur altxor nazional eta internazionaltzat jo behar da, eta hala babestua izatea merezi du. AA sistemak trebatzera bideratutako arpilatzea, irabazi-asmo hutsez egina, egile-eskubideak urratzen dituen ekintza da; are gehiago, gizateria osoaren ondare kulturalari egiten dio kalte.

Aiora Jaka Irizarrek itzulia